

Peoi Espezialistarako Lan Poltsa

Zeanuriko Udalak, 19. Alkatetza Dekretuz, 2015eko otsailaren 19an emandakoaz, hurrengoko ebazpena hartzen dau:

Lehena: Peoi Espezialistarako Lan Poltsa bat sortzeko Oinarriak onaratzea.

Bigarrena: Oinarri horiek argitaratzea agintzea, hautaketa prozesuari hasiera emanez.

0Zeanurin,2015eko otsailaren 19an. Alkatea, Izaskun Sagarna

Zeanuriko Udalean aldi baterako zerbitzuak prestatzeko Peoi Espezialistarako Lan Poltsa bat sortzeko oinarriak

Lehena: Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua, peoi espezialistarako lan poltsa bat sortzea da, aldi baterako lan kontratuak eginez.

Lanpostuaren ezaugarriak hurrengokoak dira: E taldea, 5. nibela.

Lanpostu honi euskerazko lehen hizkuntza eskakizuna dagokio.

Bigarrena: Horniketa era

Lehiaketa-oposizioa.

Hirugarrena: Hautagaien betebeharrak

Hautaketa frogan parte hartzeko beharrezkoak:

- a)Europar Batasuna osotzen daberen Estatu bateko nazionalitatea izatea.
- b) 16 urte beteak izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea adierazten dauen gaisotasun eta akats físico ez psikikorik ez izatea medikuare egiaztagari bategaz baieztatuko dena.
- e) Ezgaitasun edo elkarrezintasun kasuaren barne ez egotea.
- f)Eskola ziurtagiria izatea.
- g) B-1 gidatzeko baimena izatea.

Laugarrena: Lanpostuaren perfila

Ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- a)Iturgintza lanak.
- b)Iturgintza, tuberien, balbulen instalakuntza.
- c)Arotzgintza lanak.
- d)Enkofradore lanak.
- e)Igeltsero lanak.
- f)Lorategi zaintza eta belar mozketak lanak, kodaña, desbrozadota edo abarrekin..

Bostgarrena: Funtzioak

- a) Udal ur sare eta saneamenduaren mantenimendua.
- b) Eskola, Kultur etxe, Udaletxe eta Udaleko beste jabegoko mantenimendu lanak.
- c) Kotxeen, tresnen eta makinen mantenimendua, nahiz Udalarenak izan edo utzitakoak izan.
- d) Udaletxeak, berari dagokion kategorian, agintzen deuten edozein lan.

Seigarrena: Instantziak

Dagokion prozesuan parte hartzeko eskariak, non eskatzaileek deialdiko oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dabezela agertzen daben, Korporazio honetako Alkateari zuzenduko dira. Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengotik hasita hogeitabi (20) egun naturaletan, azken eguneko 15.00 arte, hurrengoko dokumentazioagaz batera:

-N.A.N.-aren kopia.

-Adierazten diren merituen errelazioa, Udal honetan konpultsatuko dena.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, Euskal Administrazio Publikoan euskara erabiltzearen normalkuntza prozesua ezartzeko aipatzen diren hainbat neurri gogoan izanik, dagozkion egiaztapen bat daben izangaiek ez dabe proba hau egin behar. Aurrez azaldutakoaren arabera, GAI izango dira ondorengo ziurtagiriaren bat aurkezten daben izangaiek:

-Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako Gaitasun Agiria eta 4. maila gainditutakoa.

-Hezkuntza arloko HE1 eta HE2.

-Euskal Administrazio publikoetako langileei ezarritako HE1 edo maila handiagokoren bat izatea.

-EGA agiria eta baliokideak.

Eskariak aurkezteko epean akreditatzen ez diren merituak ez dira baloratuko.

Merituen zein eskakizunen egiaztapena honela egingo da:

a) Titulazio akademiko ofizialetarako, tituluaren fotokopia edo eskubideak ordaindu izanaren agiria.

b) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuetarako, gaituriko organoak luzatutako ziurtagiriaren bidez, profesional maila, eta lanpostua, denboraldia eta dedikazio erregimena espreski adieraziz.

c) Enpresa pribatuetako esperientziarako, lan egindako espresaren ziurtagiriaren bidez, lanpostua zein izan den adieraziz eta ahal bada bertan burututako funtzioak, epealdi eta aipatutako funtzioetan emandako denbora portzentaia, eta horrez gain, Gizarte Segurantzaren ziurtagiria edo, hau ezean, ziurtagiri fiskala. Baliogarriztat joko da lan kontratuaren kopia, bete ere, beti ere Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiriarekin batera aurkezten bada.

d) Langile autonomoentzako, baimen fiskalaren kopia eta erregimen autonomoari egindako kotizazioen ziurtagiria, edo iharduera ekonomikoen zergan altan emandako epearen ziurtagiria. Era berean, burututako lan profesionaleri buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Herri Administrazio-Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1192 Legearen 38 atalean xedatutakoaren arabera ere aurkez daitezke instantziak.

Eskariak aurkezteko epea bukatuta, Alkatearen ebazpean “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda jendeaurreratuz. Zerrenda hau Udaletxeko Iragarki-Oholean ere jarriko da.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesatuak 10 eguneko lanegunetako epea izango dabe bazterketa eragin daben akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko, baita zerrendaren aurka bidezko jotzen dituzten erreklamazioak proposatzeko ere.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin-betirakotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik egiten bada, ontzat eman edo ezetsi egingo dira behin-betirako zerrenda onetsi dauen bidez, arestian aipatutako eran argitaratuko direlarik.

Baztertze arrazoiak zuzentzen ez dituztenek beren instantzietan atzera egin dabela ulertuko da.

Akats materialak edo egitezkoak zuzendu egin daitezke, ofizioz nahiz interesatuaren eskariz, prozeduraren edozein unetan.

Zazpigarrena: Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea hurrengo eran egongo da eratuta:

Lehendakaria: Zamudioko udaleko aparejadorea.

Ordezkoa: Igorreko Udaleko aparejadorea.

Bokalak:

Zeanuriko Udaleko lanetako arduraduna

Ordezkoa: Dimako Udaleko lanetako arduraduna.

Zeanuriko udaleko ofiziala.

Ordezkoa: Dimako udaleko ofiziala.

Idazkaria: Korporaziokoa, hitzegiteko eskubideaz, baina botoa emateko eskubide barik.

Titularrarekin batera ordezkoez osatzen dabe epaimahaia, izendatu beharko dauz alkateak. Epaimahaikoen izenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Zeanuriko Udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira, lehen ariketaren deialdiarekin batera.

Epaimahikideek uko egin beharko deutesie epaimahaian parte hartzeari, eta alkateari jakinaraziko deutesie, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 28. artikuluan aurrikusitako egoeratakoren batean aurkitzen badira. Era berean, errefusa egin daitezke, lege bereko 29. artikulua arabera.

Egin behar ariketetatutarako, egoki baderitzo, aholkulari adituen laguntza eskatu dezake epaimahaiak: eta adituon egitekoa beren espezialitate teknikoko arlora mugatuko da.

Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezin izango du aritu, baldin eta lehendakaria, eta epaimahaikide titular zein ordezkoen erdiak biltzen ez badira.

Epaimahaia, aurretik deituta, kideen gehiengoaz, titular zein ordezkoakaz eratuko da. Saio horretan hartuko dira erabakiak prozedura ondo garatu daiten.

Zortzigarrena: Oposizio fasea

Lehenengo froga: Ariketa hau derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da. Erantzun anitzeko 20 galderei erantzun beharko jakie, galdera bakoitzean erantzun bakarra izanez zuzena. Ariketa honetan 10 puntu lortzen ez dituenak, baztertu egingo da.

Bigarren froga: Ariketa hau derrigorrezkoa eta ez baztertzailea izango da. Froga honetan lanpostuaren perfilari dagozkion ariketa praktikoak jarriko da.

Hirugarrena froga: Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Euskerako hizkuntza eskakizuna ziurtatzeko da froga hau. Ez da beharrezkoa izango euskerazko froga egitea instantziak aurkezterakoan hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria aurkeztu ezker, edo data horren ostean lortu eta Epaimahaiaren Idazkariaren aurrean auzeratu ezker, Euskerako froga egingo den egunean.

Euskerazko froga IVAP-ek egingo dau, horretarako antolatzen dituen deialdi bateratuan.

Bederatzigarrena: Merituen baloraketa

Baloratzeak akreditatu egin behar dira:

- a) Administrazioan, ur sarean, enkofratuetan edo Udal eraikuntzetan mantentze lanak egin izana: 0,25 puntu urteko edo dagokion puntuazio proportzionala beti be 6 hilabeteko epealdiak gutxienez izan behar direla kontuan izanik, 1 punturarte.....
- b) Arotz, igeltsero, iturgin, enkofradore edo lorazain moduan peoi espezialista lanetan, esperientzia izatea enpresa pribatuan; 0,25 puntu urteko edo dagokion puntuazio proportzionala beti be 6 hilabeteko epealdiak gutxienez izan behar direla kontuan izanik, 1 punturarte.....

Hamargarrena.: Epaimahaiaren proposamena

Partehartzaileen azken puntuazioa lehiaketa eta oposizioa faseetan lortutako puntuakaz osatuta egongo da. Puntuazioren arabera izango da partehartzaileen hurrenkera.

Epamahiak ulertuko baleu aurkeztutako inork ez dauzela betetzen lanpostua betetzeko gutxienezko baldintzak, lanpostua hutsik utziko leuke.

Partehartzaileak kalifikatu eta gero, Epaimahaiak Udaletxeko Iragarki Oholean puntuaketa hurrenkerara jarraituta hautatuta dagozanen zerrenda jendeaurreratuko dau. Halaber Epaimahaiak Alkateari zuzenduko deuto puntuazio gehien lortzen dauen hautagaien proposamena, dagokion kontratua egin daiten. Enpatea suertatuko balitz, ariketa praktikoetan puntuazioarik onenaren alde izango liteke, bigarren enpate baten aurrean teorikoan notarik onena ateratu dauenaren izango liteke, eta hirugarren enpatea suertatuko balitz adinean zaharrena denaren alde.

Lan Poltsa jestionatzeko erizpide orokorrak

Lan Poltsa osatzen dabenak, Udal Brigadaren beharrezan arabera deituak izango dira. Kontratuen iraupena Udal Brigadan sortu ahal diren beharrezan arabera izango da, beti be euren iraupen gehiengo 6 hilabetekoa izango delarik.

Behin kontratua amaitu eta gero, lan poltsan azken postuan jarriko liteke aukeratua.

Kontratazio bakoitzean, froga aldi bat egongo da, 30 lanegunekoa, eta egun horietan langilea bere lanpostutik kendu ahal izango da, aldiz aurretik informatuta eta entzunaldia eman eta gero.

Lan eskeintzaren komunikazioa telefonoz e e-mailez egingo da, gehienez be 3 aldiz.

Eskeintza ukatzeak justifikatu barik, BEHIN BETIKO BAJA ematea suposatuko dau, interesatuari idatziz komunikatuko jakona.

Komunikatu ezin izanak, zerrendan hurrengo dagoenari deitzea suposatuko dau.

Halan da be, honek bere txanda amaitzen dauenean, lokalizatu ezin izan denaren partehartzailea notifikatzen saiatuko da Udala. Bigarren saikera honetan, aurreko prozedimendua jarraituz ezin izan bada notifikatu, BEHIN BETIKO BAJA emango jako.

Hamaikagarrena: Dokumentazioaren aurkezpena

Proposatutuako izangaiak, izendapena argitara ematen denetik 20 egun naturaletako epean, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko oinarrietarako 3.atalean eskatzen diren baldintzak betetzen dauzela egiaztatzen daben jatorrizko agiriak aurkeztuko dauz.

1. NAN edo pasaportearen kopia konpultsatuta edo fotokopia (jatorrizko agiriarekin batera).
2. Oinarrietarako 3. atalayan eskatzen den tituluaren fotokopia edo eskubideak ordaindu izanaren agiria.
3. Ohiko eginbeharretarako eragozpenik jartzen ez dauen gaixotasunik zein beste akats físico edo psikikorik ez daukala egiaztatzen dauen ziurtagiria, Zeanuriko Udalak proposatutako sendagileak eginda.
4. Zinpeko aitorpena, esanez, ez dagoela bateraezintasun edo ezgaitasun auzi legalen batean sartuta, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen Bateraezintasuna arautzen dauen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurrikusitakoaren arabera.

5. Atal honetan adierazitako epean, eta ezinbesteko kasuetan salbu, proposatutako izangaiak eskatutako agiriak aurkeztuko ez balitu, edo hauek azterturik galdetutako eskakizunen bat betetzen ez dauela ikusiko balitz, ezingo da kontratua izan, eta berarekiko iharduera guztiak baliogabetuak geldituko dira, eskaeraren faltsukeriagatik izan zezakeen erantzunkizunaren kalterik gabe. Hala gertatuz gero, azterketa guztiak gainditu eta azken puntuaketa hurrenkeraren arabera, ondoren dagoenaren aldeko proposamena egingo dau organo eskumendunak.

Izendapenaren proposamena onartu eta gero, eta interesatuari notifikazioa egin eta 30 lanegunetako epean, hautagaiak lanpostuaren jabetza hartu beharko dau.

Hamabigarrena: Bilera-agiriak eta gorabeherak

Epaimahaiko Idazkariak Epaimahaiaren ekintzen agiria jasoko dau. Bertan, behintzat, frogen zuzenketen erizpideak, emaitzak, merituen baloraketa eta izagaien zatikako eta guztirako puntuazioa agertuko dira. Horrez gain, proposatuaren izena eta gorabeherarik egon den ere agertuko da.

Epaimahaiari ahalmena ematen joko sor daitezkeen zalantzak argitzeko, eta oposizio lehiaketak bide onetik jardun dezan beharrezko diren erabakiak harzeko, oinarri honetan eta ordezkariaren aplikatzea den legegian aurrikusi gabeko kasu guztietan.

Hamahirugarrena: Poltsaren iraupena

Deialdi honetatik sortzen den Poltsaren iraupena, Udaleko iragarki oholean publikatzen denetik, lanpostua behin betiko hornitu arte edo beste lan poltsa bat egin artekoa izango da, beti be 3 urteko epe barruan.

Hamalagarrena: Inpugnazioa

Baseak, deialdia eta honeetatik eta epaimahaiaren jokaerarik ondorioztatu daitezkeen ekintza guztiak Herri Administrazioaren Zuzenbide Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera inpugnatu ahal izango dira.

I ERANSKINA

1. Gaia: Zeanuriko Udalerriaren ezagutza orokorra.
2. Gaia: Lan Arriskuen Prebentzioarako legearen ezagutza orokorra. Laneko Segurtasun eta Higieneko Oinarriko Arauak.
3. Igeltzeritza: Ezagutza Orokorrak.Tresna, eta produktuen erabilera eta mantenimendua.

4. Iturgintza: Ezagutza Orokorrak.Tresna, eta produktuen erabilera eta mantenimendua.
5. Arotzgintza: Ezagutza Orokorrak.Tresna, eta produktuen erabilera eta mantenimendua.

Zeanurin, 2015eko otsailaren 19an.